

Hasiera > Huhezi > Aktualitatea > Albisteak > Javier Agirresarobe zine-argazki zuzendaria, HUHEZIn

## Javier Agirresarobe zine-argazki zuzendaria, HUHEZIn

2011/12/20




Abenduaren 20an, asteartea, eta Jakiunde akademiak babestuta, Mondragon Unibertsitatean izan zen Javier Agirresarobe zinemako argazki-zuzendari eibartarra, Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean, eta bertan hitzaldi-mintegi bat zuzendu zuen. Areto nagusia beteta egon zen, eta MUTElebistak zuzenean eman zuen hitzaldia, streaming bidez.

Euri dezente egin du Javier Agirresarobe gaztea Ikuska dokumental-sailean lanean hasi zenetik. Harrezkero Eibarko argazki-zuzendariak bide luzea egin du zinemagintzan. Hainbestekoa, zeren gaur egun Hollywood-en bizi baita, bere enpresa eta guzti: Santa Clara island. Hala ere, aprobetxatuta Gabonetarako Euskal Herrira itzuli dela, Mondragon Unibertsitateak Eskoriatzara ekarri zuen, Jakiunde akademiaren laguntzarekin.

Agirresarobek hiru film erabili zituen bere hitzaldi-mintegian, bere lanaz hitz egiteko: *Mar adentro* (Alejandro Amenabar), *Vicky Cristina Barcelona* (Woody Allen) eta *The road* (John Hillcoat). Lehenengoan bere lana izan zen ahalik eta itxurarik naturalena ematea filmari, nahiz eta horretarako lan gehiena dekoratuetan egin. Bigarrenarekin, oster, alde batera utzi behar izan zituen konbentzio gehienak, usukoak Hollywood-en, Woody Allen oso bestelakoa delako, berezia. Eta hirugarren filmean, azaldu zuen zelan egin behar izan zuen burruka eguzkia erabat baztertzeko filmazioan, ispilatu nahi izan baitzuen Cormac McCarthyk bere eleberrian deskribatzen duen giro apokaliptiko iluna.

Bi ordu eta erdi iraun zuen hitzaldi-mintegiak, baina inor ez zen bere aukitik mugitu, halako interesez jarraitu baitzituzten denek Javier Agirresaroberen hitzak, anekdota bitxiz zipritinduta.



### Oharra:

Mondragon Unibertsitateko Web gune honetan hitzaldi-mintegiaren bideo osoa ikusi ahal da

<http://www.mondragon.edu/eu/huhezi/aktualitatea/albisteak/agirresarobe-huhezin>